


Banaturuz eraldatu!



AZKEN BERRIAK

2025/05/23

**HAURRESKOLAK
PARTZUERGOA**

**HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO LANGILE FINKOEN ERRETIRO
PARTZIALARI ETA ERRELEBU-KONTRATUARI BURUZKO INFORMAZIO
GARRANTZITSUA**

Haurreskolak partzuergoak 61 urtetik gorako langile finkoei erretiro partzialari buruzko informazio garrantzitsua bidali die emailaz.

Horrela, Haurreskolak Partzuergoak 2025 edo 2026 urteetan erretiro partziala hartzeko asmoa duten langileei, asmo hori adieraztea eskatzen die ondoko agiri hauek aurkeztuz:

- Erretiro partzialaren eskabidea, hautatutako jardunaldi-modalitatea adierazita (egunerokoa, edo asteko, hilabeteko, urteko edo urte anitzeko modalitate metatua)
- Erretiroa partziala hartzeko baldintzak betetzen dituzula egiaztatzeko agiriak; hau da, lan-bizitzaren txostena eta ohiko erretiro-adinerako kalkulaturako erretiroaren simulazioa.

Asmo hori adierazteko eta agiriak aurkezteko epea ekainaren 2an amaitzen da.

Erretiro partzialaren inguruan zalantzak badituzu jarri lehenbailehen gurekin harremanetan ohiko bideak erabiliz.

Animo eta aurrera!

ARABA:
haurreskolakaraba@lab.eus

GIPUZKOA:
haurreskolak.gip@lab.eus
haurreskolak.gip1@lab.eus

BIZKAIA:
haurreskolak.biz@lab.eus
i.belarrinaga@lab.eus

LAB⁷
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA